# Hitz grafikoaren balioa

Fernando Buesa Blanco Fundazioak Alcala de Henaresko Unibertsitateari enkargatutako ikerketa lanaren emaitza da argitalpen hau. Izan ere, ikerketa lan hark eman zuen EXPOSICIÓN VIÑETAS POR LA PAZ Y CONTRA LA VIOLENCIA/BAKEAREN ALDEKO ETA BIOLENTZIAREN AURKAKO BIÑETEN ERAKUSKETA, eta erakusketaren katalogoa da orain aurkezten duguna.

Azken 25 urte honetan, prentsa idatziko marrazkilari hoberenen arteko hogeiren batek indarkeria politikoa nola sumatu duten jaso du erakusketak. 200 biñeta eta iruditik gora dira, egunkari nagusietan argitaratuak (ABC, Deia, Diario de Navarra, Diario Vasco, El Correo, El Mundo eta El País).

Gasteizen inauguratu zen erakusketa, 2003ko urtarrilaren 15ean. Gero ibilbidea egin du Barakaldora eta Donostiara joanda, eta aurki Bilbon, Iruñean eta beste herri batzuetan ere instalatzea da asmoa.

Katalogo honek Fernando Buesa Blanco Fundazioaren lema du barrenean: «Hitzaren balioa». Kasu honetan, «hitz grafikoaren balioa» ezagutu nahi du, eguneroko prentsan argitaratutako biñetetan jasota. Biñetak, euren paradoxazko eraginarekin eta sortzaileen lan adimentsu eta konpromisoz betearekin, oso bide interesgarria dira indarkeria salatzeko, eta bakera eta askatasunezko bizikidetzara eramango gaituzten hausnarketa bideak irekitzeko. Bakearen eta askatasunezko bizikidetzaren balioak baitira Fernando Buesa Blanco Fundazioaren jardueraren ardatza.

Biñetak, kazetaritzaren generokoak direnez, errealitatearen adierazpide kondentsatuak dira, alde batetik; eta, ildo horretan, errealitatearen lekukotasun sintetikoak dira. Beste alde batetik, askotariko iritziak eta irudipenak (hainbat zorroztasun edo zentzuzkotasun mailatakoak, gutxiasko ironikoak eta eragingarriak) egituratzen dituzte. Azkenik, marrazkilari bakoitzaren estilo pertsonalaren eta hark erabilitako teknikaren indarra dute.

Argitalpen honek, azken batean, Euskadiko eta Espainiako dozenaka mila hiritarrek bizi duten egoera absurdu eta gaitzesgarria agerrarazi nahi du. Indarkeria terroristaren mehatxupean bizi dira, eta hori da libre eta eskubide guztiekin sentitzeko duten arazo nagusia, duten pentsamol-

dea edozein dela ere. Eta libre eta eskubide guztiekin izan daitezen, ez dago beste biderik indarkeriazaleak arlo guztietan garaitzea baizik; lehenik eta behin, balioen arloan. Arlo horrixe eragin nahi dio erakusketa honek, eguneroko prentsako marrazkilari jenial hauen biñeten guztiz bide grafiko eta zuzena baliatuz.

Gustatuko zaizuela eta zabalduko duzuela espero dut.

Natividad Rodríguez Lajo
Fernando Buesa Blanco Fundazioko lehendakaria